



HERRIKO KONTSEILUKO BILKURAREN TXOSTENA

Donamartiriko Herriko Kontseilua 2018 ko urtarrilaren 16 an bildu da, 18:30tan, Antton LARRABURU jaun auzapezaren lehendakaritzapean.

Hor zirenak : APHECETCHE Alain, ARMENDARIZ Alain, BORDARRAMPE Xalbat, CHABAGNO Inès, HARISMENDY Emmanuelle, LADEUIX Jean-Pierre, MINONDO Mirentxu, MIRANDE Mathias, POCHELU Bernadette, POCHELU Didier.

Bilkurako idazkaria : LADEUIX Jean Pierre. Bilkuraren hastapena : 18:30

2/ Estatuari diru laguntza eskaerak (DETR)

Elizaren (tindua eta zureria) eta trinketaren (argien aldatzea) berritze obrak aurreikustekoak litezke 2018 urtean.

Herriko kontseiluak aho batez deliberatzen du estatuari bi laguntze galderen egitea DETR-ren izenean, %35a lortzeko.

2/ Departamenduko Kontseiluari diru laguntza eskaera

Behasi izeneko herriko bidean obrak aitzinikusiak dira 2018 urteko. Departamenduko Kontseiluari diru laguntza eskaera bat (%40) egina izanen zaio obra hauen parte baten diruztatzeko.

Herriko Kontseiluak aho batez onartzen du Departamenduari diru laguntza eskaeraren egitea.

3 / Inkesta publikoaren bukaera, baserri bideen kentzeko eta besterentzeko (Behasiko bidea)

Txostenaren erregularitzea.

4/ Euskal Hirigune Elkargoak eramaiten duen hirigintza agirien lanketa eta zerbitzu amankomunaren kide bilakatzea

Euskal Hirigune Elkargoak hirigintza baimenen lantzeko 2018ko urtarrilaren 01tik goiti zerbitzu komun baten sortzea bozkatu du joan den abenduaren 16an.

Hazparneko Lurralde eremuko herrietako hirigintza baimen eskaerak, ERROBI lurralde eremuak lantzen zituenak, Errobi Aturri lurralde eremuak landuko ditu langileak hartu bezain laster.

Herriko Kontseiluak aho batez deliberatu du hirigintza baimenen lanketa Euskal Hirigune Elkargori emaita.

5/ Gai ezberdinak

- **Langileak/Maila aitzinamendua** : 2.mailako Animazio laguntzaile nagusi lanpostu sortzea 2018ko apirilaren 01tik goiti.
- **Hondakinen bilketaz pundua**

Bilkuraren bukaera : 20:15